

TolOsatzen prozesua

Noiz: 2017ko urriaren 23ko saioa, arratsaldeko 19:00tatik 21:00ra

Non: Kultur Etxeko Areto Nagusia

Parte hartze datuak:

- Partehartzaileak: 28
- Emakumeak:13
- Herritarrak: 20
- Udal teknikariak: 8
- Dinamizatzaileak: Garikoitz Lekuona eta Iñigo Muñoz.

1. Helburuak

- 2017 urtean zehar burututako jardueren berri eman eta ebaluazio partekatua egitea parte hartzaileekin.
- 2018 urteari begira adostutako plangintzan fokua lehenestea, behar eta aukeren arabera; hori izango delarik 2. saiorako abiapuntua, jarduera zehatzak planteatze aldera.

2. Espazioaren antolaketa

- Saioa Kultur etxeko areto nagusian egin da.
- Hasieratik aulkiak taldetxotan banatuta egon dira.
 - Talde bakoitzean 6 bat pertsona egon dira: parte-hartzaileak + bideratzaile/idazkaria (udaleko teknikariak).
- Parte hartzaileei, iritsi ahala, bakoitzak nahi duen tokian esertzeko eskatuko zaie, taldeak betez.

3. Bilerako programaren eta dinamiken garapena

Lehen saioak 4 zati desberdin izan ditu, honela antolatuta:

19:00-19:10. Ongietorria eta saioaren helburuen eta antolaketaren aurkezpena.

- Garikoitz Lekuonak egin du.

19:10-20:10. 2017an egindakoaren kontu ematea eta balorazio partekatua

- Udalak aurtien egindakoaren azalpena, ikuspegi orokor batetik eta fokua jarduera esanguratsuenetan jarriz, egin du.

Iñigo Muñozek egin du aurkezpen ia osoa, akta honi erantsitako Power Point-a aurkeztuz. Amaierako zatia Garikoitz Lekuona egin du, jarduera esanguratsuenak nabarmenduz. (I. Eranskina).

- Jarraian, taldeko dinamikan, urteko jardunaren balorazioa egin dute parte hartzaileek 2 galdera hauek oinarri hartuta:
 - Herritar gisa, zuek nola bizi izan duzue urte honetan egindakoa?
 - Zer balorazio egiten duzue iaz elkarrekin lehenetsi genituen jardueri begiratuta?

Talde bakoitzeko bideratzaile-idazkariak taldekideen arteko elkarrizketa erraztu du. Elkarrizketa horretako 3-4 ideia nagusiak 3-4 kartulinatan idazteko eskatuko zaie.

- Talde bakoitzaren ondorioen aurkezpena egin da, talde osoaren balorazioa partekatzeko. Balorazio desberdinak orri zuri batean jaso dira; honako multzoetan laburbiltzen direnak:

Proposamenak

- Sare sozialetan informazioa jartzea, parte hartzeaz informatzea, sustatzea.
- tolosatzen Ekintza antolatu behar da, prozeu hau ezagutzera emateko.
- Jende gehiago bilatu parte hartzeko, bereziki gazteak.
- Estrategiak gazte jendearengana iristeko eta herriari informatzeko eta herritarrengana iristeko.
- Proiektuetan herritarrak inplikatzeko beharra ikusi.
- Egitasmo honek beste hanka bat behar du: KOMUNIKAZIOA.

Negatiboak

- Herritarren partaidetza ez da handia izan saioan.
- Komunikazioa ez da egokia izan.
- Parte hartu dutenek jakitun dira; jendea, orokorrean, ez da enteratu eta zaila da iristea, azaltzea zer den (tolosatzen). Jendeak ez ditu lotu ekintzak eta tolosatzen.
- Beti berdinak gaude. Teknikari-funtzionari gehiegi. Kaleko jendea falta da.

- Enpresako jendea falta da.
- 50 urtetik gorakoak gara gehienak. Gazteak falta dira.
- Ideia orokorra oso ona, brainstorming-a hasierakoa oso positiboa, tekniko-politikoki bateratuta. Hasierako ideia puztuta zena hustu da.

Positiboa

- tolosatzen hasieratik hona gorpuztuz joan da.
- Jarraitu beharra dago, martxa ez galdu. Proiektu konkretuak indartu.
- Lan asko egiten da (bereziki barne mailan).
- Hizkuntza mailan antzematen da borondatea badagoela Udalaren partetik.
- Landa auzotarako partida handitu egin da 2017an.
- Azaldu direnak jarraipena izan dute, konstantzia azaldu dute.
- Alor desberdinetako jendea elkar ezagutu dugu.
- Iniziatiba ona, herritarrei parte-hartzeko aukera ematea.
- Proposatutako ekintzetatik dexente atera dira.
- Udaletxeko teknikariak prozesuaren parte izatea oso positiboa, aurpegia jartzea.
- Zeharkakotasunez proiektuak lantzeko aukera.

Bestelakoak

- Plana orain gutxi onartu da eta ekintza asko jasotzen ditu. Goiz da emaitzak baloratzeko.
- Zalantza bat: tolosatzen ze neurritan ari da gauzak bultzatzen? Katalizadorea da?
- Zer ikasi dugu? Mezuak garbiak/sinpleak. Web orria konplikatua da.

20:10-20:50. 2018ari begira, non jarri behar dugu fokua? Beharrak eta aukerak

- Parte hartzaile bakoitzari honakoak banatuko zaizkie:
 - Batetik tolosatzen ekintza planaren laburpen taula: ildo estrategiko, programa **eta ekintzen** xehetasunarekin. Taula horren kopia handia paretan jarrita egon da.
 - 3 gometxa gorri.
 - 3 gometxa urdina.
- Parte hartzaile bakoitzari banakako ariketa egitea eskatuko zaio:
 - **tolosatzen planeko ekintzei begiratuta eta 2018. urteari begira:**

Zeintzuk dira 3 behar nagusiak? (zein 3 ekintza dira zure iritziz datorren urtean jorratu beharrekoak, herrian horiei lotutako beharrak antzeman direlako?). 3 gometxa gorriak paper handian jarri, norberak bereak.

Eta zein 3 ekintza aktibatuko zenituzke aukerak bezala ikusita? (agian ekintza horien atzean ez dago gaur premiazko beharrik, baina Tolosa hobetzeko palanka izan daitezke). 3 gometxa urdinak paper handian paper handian jarri, norberak bereak.

Parte hartzaile bakoitzak bere denbora hartuko du gometxak paper handian jartzeko.

Guztiek egin dutenean Iñigo eta Garik emaitzaren irakurketa partekatuko dute, taldearen ekarpenak ere jasoz.

Pertsonak

Aukerak ← Euskararen eragileak
Euskararen Malaria
Geltzaundi

Eskola Nerde du
Estrategiak

Desparteamen duten pertsonen
Kiroi gunea → eskintze
Integratzailea

LERROA	PROGRAMA	EKINTZA
1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria	1.1. Tolosako gizarte zerbitzuak guztionak, guztiontzat	1.1.1. Gizarte Zerbitzuak ezagutarazi.
		1.1.2. Gizarte Zerbitzuetak arreta-zerbitzua hobetu.
		1.1.3. Gizarte zerbitzuak landa-auzoetara gerturatu
		1.1.4. Gizarte osasuntsuago eta inklusiboagoa helburu, premiazko alorretan erakundeen eta eragileen elkarlana sustatzeko lan mahai permanenteak eratu..
		1.1.5. Gizarte Zerbitzuen alorrean jarduten duten elkarleen elkarlana sustatu.
	1.2. Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena	1.2.1. Haur, nerabe eta gazteen ikusgarritasuna, Parte hartzea eta inplikazioa sustatu Tolosako Gizarte bizitzan
		1.2.2. Haur, nerabe eta gazteen zerbitzuak ezagutarazi, indartu eta eragile eta erakundeekin elkarlanean jardun.
		1.2.3. Haur, nerabe eta Gazteen arteko elkarlanerako, sormen ekintzetarako eta belaunaldi arteko ekintzailtzarako guneak ahalbidetzea
		1.2.4. Gazteen emantzipazioa sustatzeko politikak diseinatu eta gauzatu
	1.3. Tolosan berdintasuna eguneru eta edonon	1.3.1. Udalaren politiketan, jardueretan, antolaketa eta erabakietan genero-zeharkakotasuna txertatu
		1.3.2. Jatorri ezberdinetako herriko emakumeen jabetza, autonomia eta parte-hartzea sustatuko dituen jarduerak martxan jarzea, baita maskulinitate rol eta estereotipoak berrikustea ere
		1.3.3. Partaidetza-prozesuak erraztea eta egiturak eta mekanismoak sortzea, tolosan emakumeentzako etxe/gune bat antolatzearen egokitasuna eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko
		1.3.4. Sentsibilizazio, detekzio, prebentzio, interbentzio eta arreta politikak sustatu, indarkeria eta eraso sexistari, homofobiari, lesbofobiari eta transfobiari aurre egiteko
		1.3.5. Berdintasuna demokraziaren balio gisa azpimarratu eta emakumeen lanaren garrantzi ekonomikoa eta soziala balioan jarri
	1.4. Tolosa, herrikidetasunetik eta erantzunkidetasunetik gobernantza eredu berri baterantz, programa.	1.4.1. Tolosan kultura parte hartzailea zabaldu, eta udal funtzionamenduan txertatu
		1.4.2. Informazio eta komunikazio teknologiak indartzu gardentasun politikak sendotu
1.5. Tolosa, amasgunerantz	1.5.1. Euskarari buruzko sentsibilizazio ekimenak burutu	
	1.5.2. Espazio publikoan euskararen erabilera indartu	
	1.5.3. Eremu ez formaletan euskararen erabilera indartu	
	1.5.4. Etorrinen artean euskararen erabilera indartu.	
	1.5.5. Udal administrazioan euskararen erabilera indartu.	
	1.5.6. Alor pribatuan, nahiz aisian euskararen erabilera indartu	
	1.5.7. Kulturgintzan euskararen erabilera indartu	
	1.5.8. Tolosarren euskara ezagutza eta kale erabilera handitzea.	
1.6. Tolosa, osasunez bizitzekoa, programa.	1.6.1. Bizi ohitura osasungarria sustatu aktibitate fisikoaren bidez	
	1.6.2. Partaidetzako kirol jardueren bidez, aisia helburu duen kirol eredu bultzatu	
	1.6.3. Tolosako kirol elkarleen egitura sendotu eta monitoreen formatu eredu berritan eta baloreetan	
	1.6.4. Kirol instalakuntzak eta ekipamenduak indartu eskaintza zabalteko eta egokitzeko	

*Azpimarratzekoak bereziki:

- Behar eta aukera bezala: Haur, nerabe eta gazteen arteko elkarlanerako, sormen ekintzetarako eta belaunaldi arteko ekintzailtzarako guneak ahalbidetzea.
- Aukera bezala: Tolosan kultura partehartzailea zabaldu eta udal funtzionamenduan txertatu.
- Behar eta aukera bezala: Tolosarren euskara ezagutza eta kale erabilera handitzea.
- Behar bezala: Sentsibilizazio, detekzio, prebentzio, interbentzio eta arreta politikak sustatu, indarkeria eta eraso sexistari, homofobiari, lesbofobiari eta transfobiari aurre egiteko.

- Behar bezala: Gazteen emantzipazioa sustatzeko politikak diseinatu eta gauzatu.
- Aukera-behar bezala: Partaidetzazko kirol jardueren bidez, aisia helburu duen kirol eredua bultzatu. Loturik doanaeskola kirola duintzeko estrategia baten aldarrikapenarekin.
- Aukera bezala: Euskararen mahaia, Galtzaundi.....euskari buruzko ezagutzagatik.

Kultura eta Hezkuntza:

● KULTURAREN proposamenak gutxi dira.
Hurrelako proiektu baten, arlo txikiene da liburuan eta paneletan.
Laranja kolorea handitu behar da.
TOLOSA HERRI KULTURALA!!!

● Tolosatzen ezagutzarako EKIMEN BEREZIA

LERROA	PROGRAMA	EKINTZA
2 Tolosa, kultur anitza ildo estrategikoa	2.1 Tolosa, herri hezitzailea eta jakintsua, programa	2.1.1 Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileen arteko koordinazioa bultzatu hezkuntzako erronkei erantzuteko eta baliabideen osagarritasuna lortzeko
	2.2 Tolosa, kultur anitza	2.1.2 Ikasketa ez formaleko eskaintza zabaldu, herriaren beharrei begira eta bitarteko berrien bidez 2.2.1 Tolosako memoria eta ondare historiko-artistikoa berreskuratu, kontserbatu eta zabalkuntza eman 2.2.2 Tolosako aisialdi-sortzailea sustatu eta elkarlana indartu 2.2.3 Kultur eskaintza zabala, kalitatezkoa, osagarria eta gertukoa eskaini 2.2.4 Tolosako kultur-guneen edota azpiegituren inguruko azterketa eta hausnarketa integrala burutu, erabilpen eta eskaintza egoki baterako egokitzapenak eginez 2.2.5 Tolosako udal liburategia, herriko kultur eskaintzarako leihoa

*Azpimarratzekoak bereziki:

- Kritika estruktural bat Kultura arloari: Kulturaren proposamenak gutxi dira. Proiektu estrategiko baten baitan arlo txikiena da edukiz. Laranja kolorea handitu beharra dago. Tolosa Herri Kulturala!!!
- Behar-aukera bezala: Tolosako kultur-guneen edota azpiegituren inguruko azterketa eta hausnarketa integrala burutzea, erabilpen eta eskaintza egoki baterako egokitzapenak eginez.
- Aukera-behar bezala: Kultur eskaintza zabala, kalitatezkoa, osagarria eta gertukoa eskaintzea.
- Hezkuntza mahaia koordinaziorako hezkuntza erronketan eta baliabideen osagarritasunerako.
- Ikasketa ez formaleko eskaintza zabaldu, herriaren beharrei begira eta bitarteko berrien bidez..

- Galdera-proposamena: Herri hezitzailea bagara, aukera dugu gizartearen, biztanleriaren behar berriei erantzuteko. Hala-nola zientzia eyta teknologia eta IKTen aldetik sortu eta eskaini daitezkeena.
- Galdera-proposamena: Tolosak ez du erreferenteko Kanpo Teknologiko edota Hezkuntzarako gune bat. Aukera polita ikusten da horretarako, behar diren agenteekin hitzegin eta adostu ondoren.

Ingurumena eta Lurralde Antolaketa:

LERROA	PROGRAMA	EKINTZA
3 Ingurunearen babesa eta udalerriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria	3.1 Birgaitzea Tolosako garapenaren oinarri programa	3.1.1 Tolosako auzo batzuen birgaitzea eta berroneratzea sustatu, auzoz auzoko planak diseinatuz eta eraginkortasun energetikoa barneratuz 3.1.2 alde zaharreko birgaitzea eta biziberritzea sustatu, bizilagunen bizi baldintzak hobetu eta jende gaztea erakarri ahal izateko
	3.2 Landa eremu bizia programa	3.2.1 Tolosako landa auzoak auzo erosoak eta biziak izan daitezen bertako bizi kalitatea hobetzeko ekintzak burutu
		3.2.2 Lur politika egoki baten bitartez, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen berriak ezarri ahal izatea sustatu, tolo mendirekin elkarlanean
		3.2.3 Landa eremua, hiri-guneari gerturatzeke bide sare egokia mantendu
	3.3 Oria ibaiari begira dagoen Tolosa, programa	3.3.1 Oria ibaiak eskaintzen dizkigun aukerak balioesteko proiektuak garatu, bertako biodibertsitatea zainduz
		3.3.2 Sentsibilizazio kanpainak egin ibai eta erreken garrantzi ekologikoa balioan jartzeko
		3.3.3 Erreken ibilguak eta ertzak zaintzeko planifikazioa egin eta garatu heritarrekin eta beste erakundeekin elkarlanean
	3.4 Espazio publiko irekiak eta udal ekipamenduak herritarren harremanetarako gune bilakatzea	3.4.1 Giza neurriera eraikitako Tolosa. Herritar ororen beharrei erantzuten dien hiritartze lanak burutu
		3.4.2 udal ekipamendu eta gune desberdinen inguruko azterketa eta hausnarketa integrala burutu, erabilpen egoki baterako egokitzapenak eginez
	3.5 Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eredugarria, programa	3.5.1 Herritarrei zuzendutako kontsumo arduratsua eta osasuntsuaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin
		3.5.2 Hondakinen kudeaketan aurrera egin hobekuntzak ezarri eta sentsibilizazioa indartuz ekonomia zirkularra lortzeko bidean
		3.5.3 Udal erakundeetan erosketa eta kontratazio publiko arduratsurako estrategia garatu
3.6 Biodibertsitatea bizi-kalitatearen oinarri, programa.	3.6.1 Tolosak duen landa eremu eta ekosistema aberats eta balioetsuak zaindu eta aberastu lurren kudeaketa egoki bat eginez eta kustodia hitzamenak indartuz	
	3.6.2 Hiri barneko biodibertsitatea eta azpiegitura berdeen azterketa egin, konektibitate ekologikoa sustatuz	
3.7 Klima aldaketari aurre egin eta egokitzen jakingo duen herria, programa	3.7.1 Energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatu udal eraikin eta kale argiterian	
	3.7.2 Energia-kontsumo arduratsua eta eraginkorra eta energia berriztagarriak sustatu bizitegiaren eta hirugarren sektorean	
	3.7.3 Klima aldaketaren eraginez udalerrian eman daitezkeen inpaktuetara aurrea hartu eta egokitzapenerako beharrezko neurriak zehaztu	
3.8 Mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzen duen herria, programa	3.8.1 Oinezko eta bizikletei lehentasuna emateko plangintzak eta proiektuak garatu	
	3.8.2 Garraio publikoa bultzatu eta motorizatutako garraioan erabilera iraunkorra sustatu	
	3.8.3 Mugikortasun jasangarria eta seguru bat lortzeko hezkuntza kanpainak egin	
3.9 Ingurumen kalitatea eta giro osasuntsua sustatzea, programa	3.9.1 Soinu kutsadura gutxitzeko plangintza eta jarduerak egin	
	3.9.2 pertsonen osasunean eragina izan dezaketen eraginen ardurak kontrola egin eta ingurumen kalitatea laguntzeko informazioa eman	

* Azpimarratzekoak bereziki:

- Aukera bezala: garraio publikoa bultzatu eta motorizatutako garraioaren erabilera

iraunkorra sustatzea.

- Aukera bezala: Oria ibaiak eskaintzen digun aukerak balioesteko proiektuak garatzea, bertako biodibertsitatea zainduz.
- Behar-aukera: Giza neurria eraikitako Tolosa. Herritar ororen beharrei erantzuten dien hiritartze lanak burutuz.

Ekonomia

LERROA	PROGRAMA	EKINTZA
4.Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz	4.1 Tolosako merkataritza sustatu	4.1.1 Tolosako hirugarren sektorea eta tokiko bezeroen fidelizazioa lortu: lotura estuagoak finkatu eta harreman berriak sortu
		4.2.1 Kanpoko bezeroak (turistak) tolosara erakarri
	4.3 Tolosako azpiegitura eta baliabideak	4.3.1 Tolosa erakargarri egin erosle eta turistentzat
		4.3.2 kontsumitzaileak Tolosara etortzea erraztu harrera elementu eta harrera ekipamenduak landuz
		4.3.3.Hiri atsegina egin bertako zein kanpoko erosleentzat
	4.4 Enpresen lehiakortasuna sustatu	4.4.1 Merkataritza, ekoizle-baseritar eta zerbitzu enpresen lehiakortasuna indartu
		4.5.1 Kontsumitzaileen iritzia barneratu suspertzen diren proiektuetan
	4.5 Erlazio era berriak	4.5.2 Lankidetzak publiko-pribatua sustatu udalak hiri-ekonomiaren dinamizazio lidergoa hartuz eta sektoreen arteko topaguneak bultzatuz.
		4.6.1 Udalerriko enpresa jarduera ezagutu, erraztu eta balioan jartzea
	4.6 Tolosa, industriarentzat erakargarri programa	4.6.2 Enpresa proiektu berrien eta ideia berrien sormena sustatu
		4.6.3 Enpresen arteko sinergiak jorratu eta lankidetzak sustatzea, udalak zubigintza lanak burutuz
		4.7.1 Tolosaldea garatzen eta udaieko sail ezberdinen arteko koordinazioa indartzea
	4.7 Enplegua, funtsezko aldagai tolosako garapen ekonomikoa	4.7.2 Etengabeko prestakuntzaren bidetik eta formazio espezializatuaren bidetik enpresa beharrei erantzuteko, lanbide heziketa eskolekin lankidetzak indartzea
		4.7.3 Lan heziketa arloan emakumeekin eta arraza desberdineko pertsoekin dauden aurreiritziak gainditzeko urratsak ematea

*Azpimarratzekoak bereizki:

- Aukera-beharra: Enpresa proiektu berrien eta ideia berrien sormena sustatu.
- Beharra: Etengabeko prestakuntzaren bidetik eta formazio espezializatuaren bidetik enpresa beharrei erantzuteko, lanbide heziketa eskolekin lankidetzak indartzea.
- Beharra-aukera: Tolosako hirugarren sektorea eta tokiko bezeroen fidelizazioa lortu: lotura estuagoak finkatu eta harreman berriak sortuz.

- Lehenetsitako ekintzak – bai behar zein aukera bezala- izango dira bigarren saiorako

abiapuntua, erreferentziazko jarduerak lantzeko helburuarekin.

Ildo horretan, ariketa honen emaitzak lagunduko digu azaroaren 8ko saioaren antolaketa irudikatzen – taldekako lana arloka, edo behar eta aukeren arabera...-. Bigarren bilera horretan gainera behar eta aukera desberdinei erantzun eman diezaieketen proiektu integralak lantzea ere helburu izango dugu, sinergiak eta loturak bilatuz.

20:50-21:00. Saioaren ebaluazioa eta amaiera

- Ebaluazioa: parte hartzaile bakoitzari 2 post-it eman zaio, bakarkako ebaluazioa egin dezan. Galderak hauek izan dira:
 - Gaurko saiotik, zer gustatu zaizu? Post-it morea.
 - Eta zer falta izan zaizu? Post-it horia.

Post-itak jaso dira, bertan jasotako informazioa bildu eta hurrengorako kontuan hartzeko.

Hauek dira adierazitakoak:

Gustokoak:

- Zorionak! Oso lan ona egin duzue! Ariña! Dinamika ona.
- Dinamismoa.
- Mahaikatzeta, lana ondo aurkeztua, gazte berrien presentzia. Segi lanean!
- Parte hartze dinamikoa.
- Saio aktiboa.
- Dinamikoa.
- Ondo antolatuta, ondo bideratuta, lana erraztuta.
- Entzumena eta errespetua taldean.
- Amaieran begi kolpe batez iritsi da emaitza.
- Dinamika ariña, aukera izanik herritar bezala parte hartzeko.
- Saioa arina joan da.
- Buena metodología y bien la información.
- Zehaztasuna!!
- Proiektu konkretuetara joaten ari gara. Aurrera goaz!!
- Buena información y buena metodología.
- Saioaren dinamika.
- Saioa arina. Erraz ulertzekoa.
- Saio alai eta ondo landua.

Faltan botatakoak:

- Bileraren ordua.
- Gazte gutxi. Parte hartzea eskasa.

- Jende asko faltan.
 - Gazte eta 65 urtetik gorako gutxi.
 - Aurretik egindakoaren lotura.
 - Esperientzi osoa, sartzetik hobeto diseinatu, osoa kontuan izan. Parte hartzea. Emaitzak bideo batean jaso proiektu eginak bisibleagoak egiteko.
 - Espazioa. Jende kopurua. Ordua. Politiko gehiago falta dira.
 - Parte hartze txikiagoa.
 - Parte hartze juxtua.
 - Parte hartzea behera egin du.
 - Jende gutxi elkartu gara.
 - Hasierako ariketan zehazteko zailtasuna (lehendik esandakoak erdi-ahaztuak).
 - Alderdi (politiko) gutxi.
 - Poca concreción y generalidades.
 - Partaidetza eskasa.
 - Parte hartze eskasa herritarrena.
 - Hasierako azalpenetan denbora joan zaigu.
 - Al no saber Euskera no puedo opinar.
- Saioari amaiera eman zaio hurrengo hitzordua (azaroak 8, arratsaldeko 7tan Kultur Etxeko Areto Nagusian) eta helburua gogoratuz eta eskerrak emanez.

Milesker!!!!!! Ainhoa Azpeitia, Alberto Luengo, Elena Basagoitia, Joxe Agustin Arrieta, Angel Martinez, Ainara Irazusta, Lourdes Senovilla, Jexux Murua, Arantza Estanga, Nekane Izagirre, Angel Uranga, Ima Perez, Joserra Zalakain, Joxe Lasa, Cristina Larrañaga, Tomas Plazaola, Mireia Roca, Jesus Peñagarikano, Imanol Artola, May Gorostiaga, Maria Jesus Arrigain, Aloña Lertxundi, Nerea Elozegi, Mauro Marotias, Gorka Goikoetxea eta Nerea Cereceda.